

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA

2019-2022

**‘Denon ilusioa,
denon eginkizuna’**



Begarako
Udala



AURKIBIDEA

AURKEZPENA

EGOERA

Gaitasuna

Kaleko erabilera

Etxeko erabilera

OINARRIAK

Zergatik

Helburuak

Nola

Lehentasunak

LAN PROGRAMAK

Familia

Irakaskuntza

Helduak euskalduntzen

Udala

Lan mundua

Arlo soziokulturala

Teknologia berriak eta hedabideak / Herri-hizkera

ZURE AUKERAK

A TU DISPOSICIÓN



AURKEZPENA

EAEko Udal Legeak udalerrian euskararen normalizazioa planifikatzeko eta ezagutza eta erabilera bultzatzeko eskumena ematen die udalei.

Baina Bergarako Udalaren hizkuntza normalkuntzarekiko konpromisoa askoz lehenagokoa da. 1986an sortu zuen Euskara Zerbitzua, eta harrez gero euskara normalizatzeko lan zabala egin du herriko beste eragile batzuekin batera.

Dokumentu honetan 2019-22 epean bideratu nahi den plana jaso dugu. Hainbat herritar eta entitaterekin partaidetzarekin landutakoa da eta 2018ko abenduaren 17an onartu zuen Udalbatzak. Plan irekia da eta zu ere bertan partaide izatera animatu nahi zaitugu.




Zein da egoera?

a.- Gaitasuna

Bilakaera:


2001az geroztik ez da guztirako datuetan aldaketa nabarmenik izan. Gazteetan eta, bereziki, helduetan euskaldun kopuruak handituz doaz eta zaharretan txikitzen. Hala ere, gazteetan erdaldun elebakarrak etengabe murrizten ari ziren eta jaitsiera hori eten egin da migrazioaren eraginez. Une honetan 25-40 adin-tartean %18 inguru da erdaldun elebakarra.

Bergarrarren euskara gaitasuna 2016(%)
Iturria: Eustat



Euskaldunen % adin-tarteka 2011


Iturria: Eustat



b.- Kaleko erabilera, adin-tarteka

Bilakaera:

Azken hamarkadan moteldu egin da 2000ko hamarkadako igoera. Haurretan eta gazteetan egonkortuta dago. Helduetan berriz gorako joera ageri da eta zaharretan beherakoa.






Ahulgune nabarmen bat: mutil gazteen erabilera apala.

Bilakaera:

Populazio osoa kontuan hartuta ere, emakumeek euskara gehiago erabiltzen dute gizonezkoek baino, baina zaharretan ez dago alderik eta helduetan ere ez handia. Umeetan 10 puntu ingurukoa da eta gazteetan 20-25 puntukoa.



Indargune garrantzitsua: guraso gazteen etxeko erabilera.

C.- Etxeko erabilera

Bilakaera:

Guraso gazteen etxeko erabilerak 15 puntu inguru egin du gora azken 10 urteetan.

Populazio osoa kontuan hartuta, etxeko erabilera egonkor samar dago urteetan, zaharretan jaisten ari baita.



OINARRIAK

Euskararen normalkuntza

ZERGATIK?

- Hizkuntza aniztasuna aberastasun unibertsala da, zaindu eta bultzatu beharrekoa. Euskaldunen komunitateak soilik ziurta diezaioke euskarari geroa, eta horrek euskara nagusi izango den guneak (arnasguneak) izatea eskatzen du.
- Gizartearen borondatea eta nahia da euskarari etorkizuna bermatzea.
- Berdintasun printzipioak eskatzen du: euskara indartuz soilik izango dute euskaldunek nahi duten tokian euskaraz egiteko aukera.

HELBURUA

Euskara Bergarako ohiko hizkuntza izatea, Bergara euskararen arnagune izatea.

NOLA?

Efikaziaz, koherentziaz, elkarlanean eta modu irekian: euskara-maila, sentsibilitate, ideologia... guztiei zabalik.

- Plan integrala eta bizia. Herri mailan lantzekoak izan litezkeen arlo gehienak landuko dituena, unean-uneke beharretara moldatuko dena.
- Udal osoarena. Hizkuntza kudeaketa udaleko kudeaketaren parte; udaleko sail bakoitza bere arloan plana garatzearen arduradun.
- Gizartearekin elkarlanean. Elkarlana eta parte hartzea bera ere helburu.
- Aurrehartze-politika. Ekimen eta egitasmo berriak bereziki zaindu, eta hizkuntza irizpideak aurrez finkatu.
- Udalerriz gaindiko lankidetzak. Eskualde mailan, herrialde mailan, nazio mailan... Bergara UEMAKo kide da.
- Beste zeharlerroak ere aintzat: genero berdintasuna, aniztasuna, ingurumena...

LEHENTASUNAK

- Erabilera indartzea da lehentasuna. Espiral formako prozesua: hizkuntza erabiliz ikasten da, eta erabilera erabileratik bertatik elikatzen da.
- Euskal elebidunak sortzea helburu: hizkuntza nagusi (ondoan jakingo duten hizkuntza) euskara izango dutenak. Ahozkoan indarra.
- Gazteak eta gazteekin harremana duten helduak dira lehentasun.
- Bizitzako ohiko jarduna da lehentasuna, bizitzan denbora gehien hartzen diguna.
- Bizipen positiboaren garrantzia. Euskara gozamenarekin lotu nahi dugu.

LAN PROGRAMAK

1. FAMILIA

Familia da hizkuntza jasotzeko eremurik naturalena, errazena eta eragingarriena.

2. IRAKASKUNTZA

Euskara indartzeko ezinbestekoa da eskola; ez nahikoa, baina bai ezinbestekoa.

3. HELDUAK EUSKALDUNTZEA / EUSKARAZ TREBATZEA

Euskara gutxienez ulertzea da besteek euskaraz egin ahal izateko baldintza. Baina garrantzitsua da euskaraz dakienak ere bere maila hobetzeko jarrera izatea.

4. UDALA

Udalak bi motatako erantzukizunak ditu: herrian euskara sustatzekoa eta bera eredu izatekoa.

5. LAN-MUNDUA, MERKATARITZA

Lan-mundua euskaraz izateak gazteen euskara sendotzea dakar; lanean euskarari lekuri ez egiteak, justu kontrakoak: eskolak kostata euskaldundu dituen gazteen euskara ahultzea.

6. ARLO SOZIOKULTURALA: KIROLA, AISIA, KULTURA...

Kirolak, aisiak, kulturak... euskara mundu ludikoarekin lotzen dute, bizipen positiboekin, eta gure harreman-sarea zabaltzen dute.

7. TEKNOLOGIA BERRIAK ETA HEDABIDEAK/ HERRI-HIZKERA

- Edozein hizkuntzarentzat ere, teknologia berriak eta hedabideak ezinbesteko eremuak dira.
- Bestalde, euskara bizi eta komunikatiboa bultzatu beharra dugu, batez ere, eremu informalerako.

1. FAMILIA

Familia da hizkuntza jasotzeko eremurik naturalena, errazena eta eragingarriena.

LAN PROGRAMAK



Maitane Etxabarri.
Ikaslea.

“Lehen aitarekin erdaraz egiten neban, eta Euskaraldixan ondoren euskaraz egiten dogu”



Mari Jose de Val.
Euskaldun berria.

“Senarra euskalduna da, ni Castellonen jaioa. Euskara ikasi nuen eta etxean beti egin dugu, eta saiatzen gara ilobei ere euskara eta euskal kultura transmititzen”



Sonia Ramirez.
Euskara ikaslea.

“Estamos estudiando euskera en la escuela en el mismo horario que los crios. Oso pozik nago”

EGITASMO NAGUSIAK

Ikastaroak gurasoentzat: jolas-kanta, ipuin-kontakteta...

Euskarazko produktuen katalogoak, aholku-liburuxkak...

Gurasoen euskara batzordeak ikaste-txeetan.



Guraso gazteen etxeko erabilerak 15 puntu egin du gora azken 10 urteetan: %30etik %45era.

2. IRAKASKUNTZA

Euskara indartzeko ezinbestekoa da eskola; ez nahikoa, baina bai ezinbestekoa.

LAN PROGRAMAK



Olatz Bengoetxea.
Soziolinguistika Klusterra.

“Eskolaren erronka handietako bat euskararen ahozko komunikazioa lantzea da. Alde horretatik oso interesgarria da Bergaran garatu den Berbekin proiektu pilotua”



Yasmina Moreno.
Ludotekako hezitzailea.

“Txikitan errefortzu-saioetara joaten nintzan. Niretzat laguntza handia izan zan orduan. Gaur egun Osintxuko ludotekako hezitzailea naiz, eta bertan kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen dogu”

EGITASMO NAGUSIAK

Ahozko komunikazioa indartzeko programak ikastetxeetan: *Berbekin*, ikasgai guztietan ahozkoa lantzeko programa; *Gu ere bertsoan*,..

Euskara maila apaleko ume eta gazteentzako errefortzu-saioak.

Lanbide Heziketan eta Helduen Eskolan euskara sustatu.

Ikasleei soziolinguistikazko oinarriko kontzeptuak azaltzeko programa (UEMA).



D eredia: Derrigorrezko Hezkuntzan, %100; Lanbide Heziketan, %58.



32-33 urte baino gutxiago duten eta Bergaran eskolatu diren guztiek euskaraz egin dituzte oinarriko ikasketak.



3. HELDUAK EUSKALDUNTZEA EUSKARAZ TREBATZEA

Euskara gutxienez ulertzea da besteek euskaraz egin ahal izateko baldintza. Baina garrantzitsua da euskaraz dakienak ere bere maila hobetu eta trebatzeko jarrera izatea.

LAN PROGRAMAK



Kristina Buizer.
Euskaldun berria.

“Orain dela zortzi urte hasi nintzen euskara praktikatzeko astean behin *Berriketanera* joaten. Orain gero eta leku gehiagotan eta jende gehiagorekin egiten dut”



Alex Labaien.
Udal Euskaltegiko zuzendaria.

“Udal Euskaltegian ikastaro aukera zabala daukagu: maila guztietakoak, presentzialak eta online; ikastetxe edo lantegietan ere ematen dugu...”



Aitzol Loiola.
Irakaslea.

“Nire ama hizkuntza euskara da, baina gaztetan Iruñera bizitzera joan eta nire euskara herdoiltzen joan zen. Orain Bergarara etorri naizenean, Euskaltegian hasi naiz, ohartu gabe egiten ditudan akatsak edo erdarakadak zuzentzeko”

EGITASMO NAGUSIAK

Euskara ikastea erabilerarekin lotu.
Euskara praktikatzeko guneak zabaldu:
lanean, denbora librean...

Euskara doan ikasteko aukera zabaldu.

Maila jasoko ikastaroak, idatzia zein ahozkoa lantzeko: irakasle, hezitzaile eta abarrentzat.



Euskara maila apaleko 50-60 herritar dabilta euskara praktikatzen Berriketan programan.

4. UDALA

Udalak bi motatako erantzukizunak ditu: herrian euskara sustatzekoa eta bera eredu izatekoa.

LAN PROGRAMAK



Fermin Gonzalez.
Udal langilea.

“Nire lankide guztiak euskaldunak dira, eta niri euskaraz egiteko esaten diet. Horregatik lantokia da nire Euskaltegi onena”



Gorka Artola.
Bergarako alkatea.

“Bergarako Udalean euskaraz dihardugu lanean; eredu izatea dagokigu eta bide horretan pausoak ematen jarraituko dugu”

EGITASMO NAGUSIAK

BIKAIN ziurtagiriaren ebaluazioa egin kanpoko ebaluatzaileen bidez, udaleko plana hobetzeko.

Kanpo harremanetan euskarazko komunikazioa indartu: enprekin, erakundeekin, herritarrekin...

Udalean ahozko erabilera indartzeko ekimenak: Euskaraldia, mintza-tratuak...

Enpresak kontratatzerakoan hizkuntza irizpideak jarri eta jarraipena egitea.



**Zinegotzi guztiak dira euskaldunak, eta langileen %90.
Udal barruko jardun idatzia euskaraz da %80an.**

5. LAN MUNDUA MERKATARITZA

Lan-mundua euskaraz izateak gazteen euskara sendotzea dakar; lanean euskarari lekurik ez egiteak, justu kontrakoa: eskolak kostata euskaldundu dituen gazteen euskara ahultzea.

LAN PROGRAMAK



Josetxo Muniategi.
Soraluceko erosketa zuzendaria.

“Hezkuntza munduan egin den lan guztiari jarraipena emateko, ezinbestekoa da lan mundua euskalduntzeko urratsak ematea. Gu horretan gabilta langile askoren konpromisoarekin”



Maitane Azkarate.
Dendaria, Bedelkarreko kidea.

“Bergarako merkataritza kalitatezkoa izatea nahi dugu, eta horrek eskatzen du gure herriarekin eta gure hizkuntzarekin konprometitua izatea”

EGITASMO NAGUSIAK

Esparru sozioekonomikoko hizkuntza egoeraren azterketa egin.

Merkataritzan euskaraz: hizkuntza paisaia, Euskaraldia...

Lan-arloko mahaia eratu eta lan-arloko egitasmo berria bideratu: Euskaraldia...



Bergaran 4-5 enpresak dituzte euskara planak; Debagoienean 50 inguruk.

6. ARLO SOZIOKULTURA

Kirolak, aisiak, kulturak... euskara mundu ludikoarekin lotzen dute, bizipen positiboekin, eta gure harreman-sarea zabaltzen dute.

LAN PROGRAMAK



Irati Iñarra.
BKEko eskubaloijokalaria.

“Eskubaloian garbi dugu gure jarduna euskaraz bideratu nahi dugula entrenamenduetan, partiduetan eta gure arteko beste harremanetan”



Enrike Txurruka.
Bergarako Musika Bandako zuzendaria.

“Musika Bandan eta Orkesta Sinfonikoan gure artian betidanik egin dogu euskaraz, eta gaur egun be gure egunerokua euskeraz egiten dogu dana”



Roberto Kareaga.
Erretiratua.

“Guk gure artian euskaraz egiten dogu normalian. Guk egiten ez badogu, zeñiek egingo dau, ba?”

EGITASMO NAGUSIAK

Eskolaz kanpoko mundua euskalduntzeko egitasmo berria.

Formazioa entrenatzaile eta hezitzaileentzat, euskararen sustapenean eraginkorrago izateko.

Euskarazko kultur sorkuntza indartzeko plataforma eratu.



18 urtez azpiko ume eta gazteen %80k euskaraz dituzte kirol entrenamenduak.

7. TEKNOLOGIA BERRIAK ETA HEDABIDEAK/HERRI-HIZKERA

- Edozein hizkuntzarentzat ere, teknologia berriak eta hedabideak ezinbesteko eremuak dira.
- Bestalde, euskara bizi eta komunikatiboa bultzatu beharra dugu, batez ere, eremu informalerako.

LAN PROGRAMAK



Eneko Azkarate.
Goienako eduki zuzendaria.

“Tokiko komunikabideak euskaraz izateak eta euren ingurunean aktiboak eta erreferenteak izateak, horrek danak, dakar gizartea euskaraz artikulatzea: merkatariek publizitatea euskaraz jartzea, politika euskaraz egitea, kirolariak euskaraz jartzea...”

EGITASMO NAGUSIAK

Euskarazko wikipedia Bergarako gaiez hornitzeko taldea eratu.

Tokiko euskarazko hedabideak lagundu: Goiena.

Interneten eta sare sozialetan euskarazko edukien eskaintza eta eskaria bultzatu.

Bergarako euskarako materialak ezagutzera eman: hiztegia, toponimia, Ahotsak.eus.

Herri hizkera lantzeko eta aberasteko lantaldea sortu: hitanoa, esamolde bildumak, gazte-hizkera, gaikako lexikoa...

Herriko leku-izenen erabilera egokia bultzatu, entitate nagusien izendegietan: Udala, Jaurilaritza, Foru Aldundia, Google...



Goiena, audientziak (CIES 2018 abendua): astekaria, 36.000 irakurle astero | telebista, 7.000 ikusle egunero | goiena.eus, 5.000-6.000 erabiltzaile egunero.

ZURE AUKERAK

Euskara erabiltzeko.

- Berriketan programa (Jardun). Astean behin euskara praktikatzeko hitzordua.
- Euskaraldia.

Euskara ikasi edo hobetzeko.

- Udal Euskaltegian aukera zabala.
- Barnetegira joateko dirulaguntzak (Euskara Zerbitzua).
- Euskara maila apaleko ume eta gazteentzako euskara indargarriak.

Idazteko laguntza.

- Euskara Zerbitzuak zuzenketa eta itzulpen zerbitzua eskaintzen du. Ikus baldintzak hemen: <http://bergara.eus/eu/zuzenketa-itzulpen-baldintzak>
- Dendetarako kartelak euskaraz (UEMA).

Aholkularitza edo laguntza tekniko.

- Euskararekin lotutako edozein gairen inguruan: euskara ikasteko edo erabiltzeko aukeren gainean, izen-abizenak euskal grafiaz jartzeaz, leku-izenen idazkeraz, teknologia berrietan dauden aukerez...

Gehiago jakin nahi baduzu...

Hemen duzu Plan Estrategikoaren dokumentua osorik: http://bergara.eus/eu/ESEP_2018-22

Zure ekarpenak

Badakazu proposamenen bat? Pozik hartuko genuke. Bidali mezu bat helbide honetara: euskara@bergara.eus.



Udaleko Euskara Zerbitzua: 943779166 | Udal Euskaltegia: 943764453 | UEMA: 946279195 | Jardun: 943763661

A TU DISPOSICIÓN

Para practicar el euskera.

- Programa Berriketan (Jardun). Grupos de práctica semanal. Más información en Jardun.
- Euskaraldia.

Para aprender o mejorar tu euskera:

- Amplia oferta de cursos en el Euskaltegi Municipal.
- Ayudas para cursos en Barnetegi. (Servicio de Euskera).
- Actividades de refuerzo de euskera para niños y niñas y jóvenes.

Para escribir en euskera

- El Ayuntamiento ofrece un servicio de corrección y traducción de escritos. Más información en: http://bergara.eus/es/condiciones_correcciones-traduccion
- Confección de carteles en euskera para establecimientos comerciales (UEMA).

Asesoramiento y ayuda técnica:

- Sobre cualquier tema relacionado con el euskera: posibilidades para el aprendizaje o utilización del euskera, uso de nombres y apellidos en grafía vasca, ortografía de topónimos, posibilidades de las nuevas tecnologías...

Tus propuestas.

¿Tienes alguna propuesta sobre algún tema relacionado con el euskera? La acogemos con mucho gusto. Nos la puedes enviar a esta dirección: euskara@bergara.eus.

Si quieres saber +

Puedes leer este librito en castellano en formato PDF en esta dirección: http://bergara.eus/es/esepe_2018-22.

Edozein informazio edo
laguntza nahi izanez gero,
Euskara Zerbitzuan izango
gaituzu.

EUSKARA ZERBITZUA
UDALETXEA.
SAN MARTIN AGIRRE PLAZA
euskara@bergara.eus
Telefona: 943779166

